

TOKIKOM KAZETARITZA SARIAK 2018. **Azken epaia**

TOKIKOM KAZETARITZA SARIAK 2018 deialdira aurkeztu diren proposamenak banan-banan sakon aztertu ondoren, epaimahaia osatu duten **Maria Gonzalez Gorosarri, Goio Arana Arrieta eta Iker Treviño Arantzabal** jaun-andreek, idazkari lanetan jardun duen Joxe Rojas Granjaren laguntzaz, ondoko hau

ERABAKI DUTE:

1.- Honela banatzea 2018ko deialdiko TOKIKOM KAZETARITZA SARIAK:

AZALIK ONENA kategoria

Saria ematea Puntua astekariak aurkeztutako “Porrotx” azalari. Honako arrazoi hauek nabarmendu ditu epaimahaiak saria emateko orduan:

- Argazkiaren kalitate teknikoa eta subjektuaren posearekin zein irudiaren mozketarekin egindako jokoak, irudiari balio estetikoa eta informatiboa ere emateko.
- Azal osoaren konposizioa, komunikatu nahi den ideia modu erabat grafikoan ematea lortzen duena.
- Era berean, epaimahaikideek nabarmendu dute aldizkariak astero-astero egiten duen ahalegin nabarmena, azaletan edukiaren sintesi grafiko erakargarria egiteko.

Saridunarekin batera, beste bi lan ere nabarmentzea finalista gisa:

- **Hiruka astekariak aurkeztutako “Legez kanpoko pergoikadak”.** Argazkiak lortzen duen inpaktua eta orrialde osoaren diagramazio arin eta garbiagatik.
- **Geuria aldizkariak aurkeztutako “80 urte bonbardatu gintuztela”.** Argazkiarekin egindako joko bitxiagatik, azal bikoitza sortuz, eta osotasunari postal itxura emateko tratamendu grafikoagatik.

EDUKIRIK ONENA kategoria

Eztabaida luze baten ondoren, epaimahaiaren erabakia da **EDUKIRIK ONENA kategoriako saria ematea Geuria Aldizkariak aurkeztutako “Berba eta Irudia” monografikoari.** Besteak beste, honako arrazoi hauengatik:

- Tokiko abiapuntutik landuta, Euskal Herrira begira nazio mailako kultur ekarpen interesgarria egiten duelako, hainbat formatu eta estilo nahastuz eta lanketa sakona eginez: elkarrizketak, argazki bildumak, filmografia...
- Nazio mailako pertsonaia ospetsuak tokian tokiko ‘ezezagunekin’ ondo uztartzen dituelako, batzuen eta besteen lanaren garrantzia agerian utziz.
- Alde grafikoan egindako ahaleginagatik: argazkietan oinarritutako ilustrazioak, elementu informatibo ugarien maketazioa, bi orrialdeko azala... lan handia sumatzen da alde estetikoan ere.

Saridunarekin batera, beste bi lan ere nabarmentzea finalista gisa:

- **Noaua! astekariak Joxan Artzeren heriotzan argitaratutako gehigarria.** Bi kazetariko erredakzio batek 16 orrialdeko gehigarri osatu eta txukuna landu zuen oso egun gutxiko tarteaz (Artze hil eta bost egunera kaleratu zen gehigarria), beste behin ere, tokiko ikuspegitik interes orokorreko ekarpena eginez.
- **Guaixe astekariak 2016ko kintoetan Altsasun gertatutako sexu erasoaren epaiaren jarraipena.** Komunikabide handiagoetan modu hotzean eta sentsazionalismotik egindako tratamenduaren aldean, Guaixek beste enfoke bat hartu du, gertukotasunak honelako kasuetan izan dezakeen balio erantsia garbi utziz eta erantzun soziala ematen ahaleginduz.

IKUS-ENTZUNEZKOAK kategoria

Atal honetan honakoa izan da erabakia:

Saria ematea Hiruka aldizkariak aurkeztutako “Umeterapia” bideoari. Honako meritu hauek aipatu dituzte epaimahaikideek:

- Aukeratutako gaiaren izaera bitxia, polita eta erakargarria.
- Enfokea ere oso egokia da, oso tentagarria suerta zitekeen errazkerietan erori gabe.
- Baliabide gutxirekin ikus-entzunezko eduki txukunak sortu daitezkeela erakusten du, ikuslearentzako benetan interesgarriak.

Saridunarekin batera, beste bi lan ere nabarmentzea finalista gisa:

- **Goiena telebistak aurkeztutako *Barru: Futboletik harago* saioa:** gaiaren originaltasunagatik eta bideoaren faktura teknikoagatik.
- **Maxizatzen aldizkariak aurkeztutako *Kuxkuxin: Bizkargi Musika eta Dantza Eskola*.** Herriko elkarte eta enpresen berri beste era batera aurkezteko egindako ahaleginagatik eta, aurrekoan bezala, bitarteko gutxirekin ikus-entzunezko erakargarriak egin daitezkeela erakusten duelako.

Amaitzeko, epaimahaiak berriz ere aipatu nahi du jasotako lan guztien maila, toki komunikabideetan egunero eta txikitetasunetik egiten den lan eskeraren erakusgarri.

Bilbon, 2018ko urriaren 10ean

Joxe Rojas, epaimahaiaren idazkaria

TOKIKOM
CIF: 075069064